

Golik gabeko eguna

Joxean AGIRRE

Kontatzen dutenez, Jose Luis Borges futbola ikustera joan zen behin adiskide batekin, eta atsedendian itzuli omen ziren etxera, ez zekitelako partidak bigarren zati bat zuenik. Ni ere futbolaz ezer gutxi dakitenen gremiokoa naiz, edo nintzen behintzat, gaztetan egunkari bat besapean nuela joaten bainintzen Garmendipera, aspertzen nintzenean zer irakurria izateko.

Futbola garaipenen eta porroten kontakizuna da, galdetu bestela Maitane Urbietari edo Joseba Iturriari edo bihar-munean hitzetik hortzera beste konturik ez duten zaleei. Futbola sufri-mendu eta tentsio emozionalen iturri da, galdetu bestela tarteka-marteka es-

tadioetan bihotzekoarekin hiltzen diren zaleei. Futbola gutasunaren zutabe da eta zeloak eragiten ditu, galdetu bestela familia erdia Bizkaian dugun gipuzkoarroi. Gogoan dut Errege Kopa zela eta bertso bikain bat kantatu zuela Jon Maiak Meridatik. «Batzuek hemen Meridan, ta beste batzuk etxean/ batzuk oraindik bidean, besteak bide ertzean/ gu beti gure lekuan, irabazi zein galtzean/ gu beti gure taldean, lehen ta aurrerantzean/ umetako amets bat da, daukaguna bihotzean/ zuri-gorri gogoratu, zelaira ateratzean/ ez zara bakarrik joango, herri bat duzu atzean», entzun nuen eta erne jarri nintzen, «zer ote da herri hori?», galdetzen niola neure buruari, zeloak gaixotasuna bai-

tira. Eta ondoren, kalean topo egin nuelarik, galdetu nion Joni ea zer zuten jokalaria zuri-gorriek “atzean” beste taldeetakoek ez zutena, eta ez ginen ados jarri.

Aitortu beharra daukagu futbolak soziologia merkea egiteko aukera izugarriak ematen dituela, tabernako soziologia egiteko esan nahi dut.

Kontuak kontu, futbolik gabeko egunak datoz. Xabier Amurizak Gabonen inguruan Kepa Matxaini “Argia”-rako eman zion elkarrizketa eder batean zulo beltzaren irudia erabili zuen jubilatutik ondoren denbora librean eragiten duen beldurra adierazteko. Nago futbolzale askok ere ez ote dituzten asteburuak zulo beltz gisa ikusiko. •

Lagun batek kotxea erosi du

Maddi Aiestaran
IPARRAGIRRE

Lagun batek kotxea erosi du. Han eta hemen ibili da begira, batarekin gelditu eta bestearekin ere bai. Kilometroak eta urteak eta kutsagarritasuna eta euroak hizpide, kotxe-jabeekin eta gaia ateratzen zuenarekin. Ametsa zen oraintsu arte, kontu korrontea politu ahala hurbilagotzen zena; mantso, baina. Ez dakit noiz hasi garen kontu korrontearen politasunaz ulertzen. Kezkatzen hasi ginenean, pentsatzen dut. Kontua da zeroek ematen diotela. “Astelehenean hemen izango dut” esan du. Eta pentsatu dut, jo, ze bat-batean ailegatu garen puntu honetara.

Gurasoei, lagunei, lankideei, lehen-gusinei, maitaleei, bizilagunei, klase-kideei kotxea eskatuz ibiltzen denari otuko zitzaion seguruenik kotxea erostearena behin baino gehiagotan. Eta iritziko dio agian bere kontu korronteari ez-aski-polit. Eta iritziko dio agian erosketari ez-aski-koherente, ez-aski-ekologista. Baina otuko zaio eta egingo du amets. Kontua ez delako zeroek ematea edo ez. Kontua da kotxea darabilgula ia-ia sakelako telefonoa nola: ezin erantzi soinetik. Askotan haserretzen naiz gure ibilerei begira. Eta iristen da ostirala, aurrei-kusten dut trenaren atzerapena, ur-

duritzen naiz, zalantza egiten dut, saiatzen naiz eguneko ekintza guztien ordutegiak zehazten, begiratzen dut berriz trenaren irteera ordua, burura ekartzen dut kotxe-bidaia es-kainiko lidakeen abantaila bakoitza, eta berriz erabakitzen dut: kotxez joango naiz.

Nire zeroak ez dira kotxera iristen. Baina astelehenean aurrera hurbilago izango dut bolante bat, laguna etxe inguruan dabilenean, eramango nauena garraio publikoak goizegi, beranduegi, garestiegi, mantsoegi edo zorabiatuegi eramango nindukeen espaloi iskina horretara. •